


Denzel
Washington
aktorea,
Hurricane
Carter-en
rolean

Aspaldiko zinema intentzio onekoa

Filma: Huracan Carter. Estatu Batuak, 1999. **Jatorrizko izenburua:** Hurricane. **Zuzendaria:** Norman Jewison. **Gidoia:** Arnyan Bernstein eta Dan Gordon, Rubin Hurricane Carter-en autobiografian oinarriturik. **Argazkia:** Roger Deakins. **Musika:** Christopher Young. **Aktoreak:** Denzel Washington, Vicellous Reon Shannon, Deborah Unger, Liev Schreiber, John Hannah. **Traupena:** 145 minutu.

HURRICANE ez da film txarra. Inolaz ere. Baina ez da film ona. Inolaz ere. *Hurricane* film duina da. Dudarik gabe. *Hurricane* beltzek nozitzen duten diskriminazioaren kontrako aldarrikapena da. Gizon zuriak eginiko aldarrikapena. *Hurricane* joan ziren garaietatik datorren pelikula eta zinema mota da. 60ko hamarkadan, Martin Luther Kingek amets onak eta Malcom X-k amets gaiztoak egin zuteneko aro horretan, hamaika zinema *liberalek* dozenaka film *integratzaile* egin zuten. Gu, une haietan dezente inozo ginen eta animoso hartu genituen intentzio oneko zeluloide puska horiek.

Baina, baina, baina, *Times are changing* (Garaiak aldatzen ari dira), Dylanek kantatu zuen legez. Jada, dagoeneko, *Hurri-*

cane bezalako filmek ez dute lekurik gure bihotz eta begi gogortu eta gaiztotuetan.

Hurricane, hala ere, bada zinema ondo, tajuz eta gizalegez egina nahiz eta momentu batzuetan ikusleak derrigorrez pentsatu behar Norman Jewisonen ez dakiela istorioa nola bideratu. *Hurricane* bada jendeak larunbateko arrats batean gustura ikusiko duen filma. Denzel Washingtonek lan mardula egin du, baina ez da sekula libratuko pelikulaz pelikula erakitzen duen pantailazko bere pertsonaiarengandik. Denzel beti izango da makurtzen ez den gizaki beltza, eta ezinezkoa izango zaio inoiz gizon bihurri edo gaiztoarena egi-tea...

Hurricane-k boxeolari baten istorioa kontatzen du. Baina ez da Scorseseren *Raging Bull*, edota aspaldiko film ezinhobe horiek, *Mas dura sera la caída* edo *Lucky Luciano*. Carterri bi hilketa leporatuko dizkiote eta kartzelan sartuko dute bolada luze, luze, batez. Derrepentean, Kanadako lagun ezezagun batzuek beren gain

hartuko dute askatzeko erantzunkizuna... Txalo pin-txalo.

Hurricane-n zintzoak zintzoegiak dira, eta sekula ez duzu ulertzen zergatik diren horren jatorrak. Gaiztoek, aldiz, Victor Hugoren *Los miserables* hartan agertzen zirenen parekoak dira. *Hurricane*-n dena da beltz-beltza edo zuri-zuria. Gris koloreko ezer ez da onartzen. Ñabardurarik gabeko pertsonaiak, ñabardurarik gabeko gidoia eta pasadizoak, ñabardurarik gabeko zinema egiteko aspaldiko manerak...

Badira orde momentu ederrak, jakina. Eta esaldi primerakoak: kartzelako uniforme jantzi beharko duela esaten diotenean, Carterrek honelako erantzun bikaina luzatzen die bertakoei: «Errugabea naiz eta ez ditut gizon errudun baten arropak jantziko». Baina ez da nahikoa pelikula salbatzeko.

Agian gu, jadanik, errugabeak ez garela eta ipuinetan ez dugulako sinesten. Lastima.

Begoña del Teso

l a b u r r e a n

A Z P I E G I T U R A K

■ Bilboko Mistyk kafe-antzokiak euskal artistentzako gune izan nahi du formato txikiko ikuskizunetan

JOAN den abenduan hasi zuen programazio egonkorra bilboko Mistyk kafe-antzokiak. Musika, umorea, dantza, antzerkia eta bestelako formato txikiko ikuskizunekin jarraituko du aurrerantzean ere. Arduradunek atzo azpimarratu zuten, «euskal artistei toki bat eskaintzen diegu euren lana erakusteko, eta publikoari gauero ikuskizun bereziren bat, kultur mailan aberasten ari den Bilbo honetan».

A R T E A

■ Gerrako argazkien erakusketa Arteako Agiritegian inauguratuko du bihar Sabino Arana Elkargoak

NUNCA MAS. *Imagenes de guerra 1936-1939* erakusketa inauguratuko du bihar Arteako Abertzaletasunaren Agiritegian Sabino Arana Kultur Elkargoak. Maiatzaren 7ra arte, ehundik gora argazki izango dira bertan ikusgai, asko orain arte argitaragabeak. Irudiok Leire Arrieta eta Miren Barandiaran historialariek argitara berri duten *Nunca mas. Imagenes de guerra 1936-1939* liburuan agertzen dira.

M U S I K A

■ Europako Batasuneko Gazte Orkestraren frogetan Euskal Herriko hainbat musikarik hartuko du parte

GAUR eta bihar egingo dira Madrilén Europako Batasuneko 2000 Gazte Orkestrarako frogak. Bertan parte hartuko duten musikari gazteen artean hainbat euskal herritar izango dira. Frogak Europako Batasuneko hamabost estatuetan egingo dira 140 musikarik osatzen duten orkestra berritzeko. Hautatuek aurtengo udako biran eta 2001eko udaberrikoan hartuko dute parte. Orkestrako zuzendaria Bernard Haitink da, eta gonbidatu gisa aritzen dira Abbado, Solti, Mehta, Judd, Barmet, Tate edota Leinsdorf bezalako maisu ospetsuak.

■ Yehudi Menuhin maisuaren omenezko kontzertua eskainiko dute hilaren 12an musikari gazteek Vianan

YEHUDI MENUHIN hil zela urtebete beteko dela eta, hilaren 12an doako kontzertua eskainiko dute Vianan musikari gazteek. Bach, Leclair, Schubert, Telemann eta Haendelen lanak interpretatuko dituzte biolin jole eta orkestra zuzendari ospetsuaren omenez. Live Music Now elkarteak da antolatzailea.

Z I N E M A

■ Pablo Malo donostiarra bere bigarren lan laburra filmatzen ari da egunotan

DONOSTIAKO hainbat tokitan ari da Pablo Malo bere bigarren film laburra errodutzen. *Jardines deshabitados* da film horren izenburua, eta gazte bat da protagonista. Sekretu bat gordetzen duen etxe arraro batean gela bat alokatzen du gazte horrek. Eloy Azorin, Juan Diaz, Unax Ugalde. Maribi Bilbao eta Andoni Erburu dira aktoreak, eta Pablo Malok berak idatzi du gidoia, *El angel de marmol* bere lehenengo lanean egin zuen bezala.

ESKELAK



**Jose Antonio
Landa
Ugarte**
JAUNA

BERANGOKO UDALEKO ALKATE JAUNA

2000ko otsailaren 28an hil zen Berangon
62 urte zituela.



BERANGOKO UDALA

Bere animaren alde otoitz egin eta gaur asteazkena **martxoak 1 arratsaldeko seietan** Berangoko Santo Domingo de Guzman Parrokian izango diren hileta-elizkizun eta gorpuaurreko mezara joan zaitezela eskatzen dizuegu. Aldez aurretik mila esker.

2000ko martxoaren 1a

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(943) 300 222